

XXI. MENDEKO LEHENENGO LORE-JOKOAK ONDARROAN AUGUSTIN ZUBIKARAI OMENTZEKO

1. OMENALDIAREN NONDIK NORAKOAK

Orain dela ia bi urte eta erdi, 2004ko uztailaren 12an Augustin Zubikarai idazle ondarrutarra zendu zenean, bolo-bolo ibili zen bazter guztietan aparteko omenaldia egin behar zi-



Lore jokoaren egitarauaren aurkezpena (irribak 5): Aitor Maruri, alkatea, eta Javier Arrieta.

tzaiola Zubikarairi. Bizi zela omenaldi bat baino gehiago egin zitzaion, azkena 2002ko irailaren 14an, Ondarroan bertan, Zubi Berrian. Alabaina, hura hil ostean zerbait berezia antolatze-ko gogoia sumatzen zen. Baina zer? Edozer izanik ere, aberri mailakoa eta bide zabaltzailea.

Bada, 2004ko azaroaren 30ean, *San Andres* egunean, Ondarroako Udaleko ordezkarien artean lore-jokoak antolatzeko ideia atera zen. Hurrengo hilabeteetan pertsona desberdinei eman zitzaien ideia berri, haien iritzia jakin nahian. Orduan, erronka handia zela esan zuten batzuek. Beste batzuek, ordea, lore-jokoak zer ziren ere ez zekiten; harrigarria! Baina inork ez zuen ezetzik esan. Horregatik, erabaki zen egitasmoa aurrera atera aurretik zirriborro bat egitea, lore-jokoak berreskuratzearen arrazoia azaltzeko, eta lore-jokoen gutxi gorabeherako egitura edo edukia jasotzeko. Behin oinarriak ezarrita, Udal ordezkariak behin betiko erabakia hartu behar zuten.

Bilera eta gogoeta ugari egin ondoren, 2005eko Aste Santuetan Ondarroako Udalak erabaki zuen 2006ko udazkenean



Euskara artoloko sari banaketa (Xabier Mendiguren eta aurkezleak, Leire Bilbao eta Joxe M. Urteaga).

XXI. mendeko lehenengo lore-jokoak ospatzea, Augustin Zubikarai omentzeko.

Aurkezpen ofiziala Bilbon egin zen, Euskaltzaindiak Plaza Berrian duen egoitzan, uztailaren 13an. Beraz, data esanguratsua aukeratu zen aurkezpena egiteko, alegia, Zubikarairen heriotzaren lehenengo urteurrena. Ondarroako ordezkarietz gain, bertan izan ziren Jose Antonio Arbelaitz Eusko Jaurlaritzako ordezkaria, Belen Greaves Bizkaiko Aldundiko kultura-diputatu eta Andres Urrutia euskaltzainburua.

Aurkezpen hartako ondorio nagusia hurrengoa izan zen:

«Lore-jokoak antolatzea da Augustin Zubikarairi eskaini ahal zaion omenaldirik onena. Hurrean ere, egon badago nolabaiteko lotura Augustin Zubikarairen eta lore-jokoen artean».

Ildo horretatik, lotura hori azaltzeko, hiru izan ziren Ondarroako Udalak aintzat hartutako oinarri nagusiak: historia, Zubikarairen irudia eta euskal kulturak XXI. mendean dituen erronkak.



Goizon Lohera eta Jabier Kalizakorta.

1.1. Historia arakutzen

Lore-jokoak XIX. mendearen erdialdean sortutako mugimendu euskaltzalea zian zen, Iparraldean sortu arren, zazpi euskal lurraldeetara hedatu zena. Lore-jokoak sortzeko arrazoi pisuzkoena euskaldunen arteko nortasun-krisia izan zen. Nortasun-krisi hori eragin zuten, besteak beste, Iparraldeko gazte asko Hego Amerikara ihes egin izanak eta, Hegoaldean, karlistaldiak amaitu ostean foruak galdu izanak.

Iparraldeko Antoine dAbbadie izan zen lore-jokoan sortzaile eta bultzatzaile nagusi; izan ere, bere patrikatik ordaintzen zituen halako jaialdiak. Hasierako lore-jokoetan olerki-lehiaketak eta herri-kirolak baino ez ziren antolatzen. Hala ere, denborarekin, lore-jokoak euskal kulturako arlo guztien erreferentzi bihurtu ziren. Bestela esanda, lore-jokoek euskal kulturaren berpizkundea eragin zuten. Horrenbestez, literatura, antzerkigintza, musika, bertsolaritza, dantza, irakurketa eta mota guztietako ikerketak bultzatu ziren lehiaketak antolatuta. Horri esker, asko izan ziren garai hartan ezagutzera emandako euskal artistak. Azkenean, lore-jokoan bidez, nortasun-krisia gainditu ez ezik, euskal kulturari etorkizunaren ateak ere ireki zitzaizkion. Gainera, lore-jokoetan sortu zen «zazpiak bat» gaia, ikuspuntu kulturaletik; arean ere, euskal artistak konturatu ziren euskara zela zazpi euskal lurraldeak batzen zituena.

1.2. Augustin Zubikarai

Augustin Zubikarai 1914an jaio zen, eta gazte ekin zion euskal kazetaritzari zein antzerkigintzari. Gerra zibilak ere gazte harrapatu zuen Zubikarai ostera. Jakina denez, gerra zibila amaitu zenean, euskal kulturarentzat laino ilunak nagusitu ziren. Edonola ere, Zubikarai, ahal zuen neurrian, euskararen alde lanean jarraitu zuen, kultura- eta erlijio-taldeetan buru-belarri beti. Bidegile aparta izan zen. Egin-eginean ere, parrokiatiko eta erlijiosoen ardurapeko aldizkarietan aurkitu zuen babesik aproposena. Bata bestearen atzetik sortu zituen hainbeste bertso, olerki, artikulu, ipuin zein antzerki.



Literaturan sarituak: Irati Jimenez eta Kirmen Uribe.

Lore-jokoan antzera, Augustin Zubikarai ere, beste idazle eta adiskide garaikide batzuekin batera, euskal kulturaren bigarren berpizkundearen benetako motorra izan zen. Idazle oparoa izan zen, literatura-genero gehienak jorratu baitzituen. Historia eta herri-jakintza ere ederto asko jaso zituen han eta hemen. Bestalde, aldizkari sortzaile ere izan zen, *Ondarroa* urtekaria eta *Arranondo* herri-aldizkaria izanik horren adibide.

Lore-jokoan zale, lehiaketa askotan parte hartu eta sari garrantzitsuak irabazi zituen. Halaber, lore-jokoek euskal kulturarentzat zuten garrantziaren jakitun, lore-jokoan defendatzaile amorratua izan zen. Esate baterako, 1964an, Txomin Agirre

idazle ondarrutarraren jaiotzaren 100. urteurrena ospatu zenean, partaide garrantzitsua izan zen. Gerogarrenean ere, gehienbat 80ko hamarkadan, Kultura-etxeko zuzendari zela, lore-jokoak antolatu zituen Ondarroan.

1.3. Euskal kulturak XXI. mendean dituen erronkak

XXI. mendea hasi berri dugu eta euskaldunok hor dugu edozenbat erronka: kultura-aniztasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, teknologia berriak, globalizazioa, ingurumena eta abar.

Euskal kulturak badu zeresana horren guztiaren aurrean. Euskal kultura eta, batez ere, euskara nahitaez egokitu behar dira erronka berrietara. Edonondik begira dakiola ere, euskal kultura da herri egiten gaituena, berezko eskubideak dituen herri. Horregatik, bizitzako esparru guztiak euskalduntzeko hitzetatik ekintzetara igaro behar da.

Osterantzeko hizkuntzak eta kulturak errespetatu eta ikasita, gai izan behar dugu euskara normaltasun osoz erabiltzeko, etxean, kalean, unibertsitatean, lanbidean, edonon. Horrek esfortzu bikoitza dakar euskaldunontzat, baina ez dago besterik. Arloz arlo euskara normalizatzeko hutsune nabarmenak daude oraindik; gauza asko eta asko euskaraz emateko arazoak daude; hizkera teknikoa landu behar da, eta, horretarako, herri-hizkeran eta euskal idazle klasikoetan aztertu beharreko egitura baliagarri ugari dago.

Labur-zurrean esanda, azken hogeita hamar urteotan euskararen alde lan asko egin bada ere, gizartean argiro agertu behar da euskarak egin beharreko bidea oso luzea dela. Esangura horretan, iraganeko krisialdien antzekoak eragingo dituzten inguruabar nahiz modak ez dira faltako aro herrian, tartekamarteka. Halatan, horren berri ematera datoz Ondarroako Lore-jokoak, XXI. mendeko lehenengoak.

2. ONDARROAKO LORE-JOKOAK

Hiru ardatz nagusi izan dituzte Ondarroako Lore-jokoek: kultura, euskara eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna. Oro har, bi atal nagusi izan dira. Bateko, lehiaketak eta bekak antolatu dira. Besteko, jardunaldiak eta ikuskizunak.

2.1. Lehiaketak eta bekak

Lehiaketa eta beken oinarriak 2005eko abendu hasieran jakinarazi ziren. Eskuragarri izan ziren Durangoko Liburu eta Disko Azokan eta Ondarroako Udalaren web-orrialdean. Orobat, Euskal Herri osoan zehar ehunka oinarri-ale zabaldu ziren.



Patri Urbizu, Aitor Maruri alkatea eta Jean Haritschelbar Euskalitzaindiko Literatura batzordeko batzarrean, Ondarroan.

Beraz, parte-hartzaileek ia urtebete izan dute kasuan kasuko lanak egiteko. Bekei dagokienez, epea laburragoa izan da, proiektua edo lagina saritu delako. Irabazleek urtebete izango dute lana garatu eta amaitzeko.

Azkenik, lore-jokoan emaitzak urriaren 6an hasi ziren jendaurreko egiten Ondarroako Kofradia Zaharrean.

Sari-banaketak arloka antolatu dira, eta guztiak egitura bera izan dute. Leire Bilbao eta Joxe Mari Urteaga idazleak aritu dira aurkezle lanetan, emanaldiei arintasuna eta freskotasuna emanez uneoro. Horretarako, Zubikarai idatzitako lanen zati egokiak ballatu dituzte, arlo bakoitzaren arabera. Irakurketaren harira, irabazleek curen lanen berri eman dute jendaurrean. Amaitzeko, irabazleek lore-jokoetarako diseinatutako diploma eta opari berezia jaso dituzte erakundeetako ordezkarien eskutik.

Bada, honako hauek izan dira antolatutako lehiaketak eta bekak, eta, hurrenez hurren, saritutako lanak eta irabazleak:

A) *Euskara-arloan:*

- Nobela laburren lehiaketa: *Bat, bi Manchester*. Irati Jimenez.
- Itsasoari buruzko poesia-antologia: *Portu koplak*. Kirmen Uribe.
- Augustin Zubikarai idazlearen biografia lantzeko beka: saritu gabe utzi da.

B) *Kultura-arloan:*

- Musika-konposizioari buruzko lehiaketan saria erdibana eman zaie ondokoei: *Erreka biren artean* (Jabier Ituarte) eta *Artzain festa* (Josu Elberdín). Halaber, aipamen bereziarekin saritu dira bi hauek: *Erleen antzera* (Jesus Maria Sagarna) eta *Kantaize* (Jabier Ituarte).

– Arrantzaren arazoei buruzko ikerketan bi akzesit eman zaie honako hauei: *Erreleborik bai etorkizunean?* (Ane Iriondo) eta *Prestige: Galipotaren arrantza* (Ainhoa Bilbao).

– “Ondarroa ikusgarria” argazki-lehiaketa: “Ondarroa eta bere ingurua” eta “Ondarrutarrak” kategoriak (Jose Mari Urrosolo).

C) *Berdintasun-arloan:*

– “Emakumeen partaidetza gizarte-aldaketetan” beka: *Ondarroako mugimendu feministaren bilakaera eta eragina emakumeen kontzientzia hartzean 1978-2005*. Aina Riveras, Andere Ormazabal eta Miren Arbelaiz.



Kultura arloko saridunak.

– “Emakumeen partaidetzari buruzko bideo-muntaia” beka: *Sare-konpontzaileak*. Juan Bidegain, Eugenio Bidegain eta Jabier Etxano.

Bestalde, nabarmentzekoa da, lehiaketetatik eta beketatik at, umeen partaidetza bultzatzeko xedearekin, Ondarroari buruzko bi aldizkari egitea proposatu zitzaicela herriko hiru hezkuntza-zentrori. Emaitza elkarlanean egindako bi aldizkari hauek izan dira: *Ondarroa kalerik kale* eta *Ondarroa ezagutuz. Atzo eta gaur*. Horregatik, hezkuntza-zentro bakoitzak ere Lore-jokoetako diploma eta opariak jaso ditu.



“Ondarroar naturala” lehiaketako ekintzan.

2.2. Jardunaldiak eta ikuskizunak

Askotarikoak dira antolatutako jardunaldi eta ikuskizunak. Jardunaldiak euskararen ingurukoak eta nazioarteko sukaldaritzaren ingurukoak izan dira. Ikuskizunen artean musika eta antzerkia dira nagusi, baina *Ondarrutar naturala* izeneko lehiaketa ere antolatu da. Jarraian multzo nagusi horiek aztertuko dira.

A) *Euskararen inguruko jardunaldiak:*

– Urriaren 20an, goizez, Euskaltzaindiaren literatura-ikerketaren batzordea bildu zen Kofradia Zaharrean, Zubikarairen irudia eta haren lana gogoratzeko, bai eta hileroako batzarra egiteko ere. Lehendabizi, Patri Urkizu *Augustin Zubikarai (1914-2004) & euskal teatroa* gaiaz mintzatu zen. Gero, batzarreko gai zehatzei ekin zioten euskaltzainek.

– Azaroaren 3an, Zubikarairen jaiotza-eguncan, herri-hizkerari buruzko lehenengo jardunaldiak egin ziren Kofradia Zaharrean. Esangura horretan, jardunaldien leloak idazle ondarrutarren hitzak zekartzan gogora: «ukatu ezina da hizkuntza baten aberastasuna herriak erabilteko eran ezagutzen dala». Euskal herrialde desberdinetako euskaltzale ugari bildu zen bertan, adituen iritziak jakiteko. Egia esan, punta-puntako profesionalak beraien ikuspuntuen berri eman zuten. Goizean, Juan Luis Goikoetxea, Jose Luis Lizundia, Koldo Zuazo eta Paskual Rekaldek hitz egin zuten. Arratsaldean, tokian tokiko esperientziak ezagutzeko aukera egon zen. Helburu horretarako hizlari izan ziren Jose Luis Erdozia, Mikel Etxaburu, Xarles Videgain eta Pello Esnal. Jardunaldiak amaitu aurretik, Gotzon Aurrekoetxeak Euskal Herriko hizkuntza-atlasa zer-nola osatzen ari diren azaldu zuen. Andres Urrutia euskaltzainburuak itxi zituen jardunaldiak.

B) Nazioarteko sukaldaritzaren inguruko jardunaldiak:

Nazioarteko jardunaldietan munduko herrialde desberdinetako jakiak prestatu eta dastatu dira. Jardunaldiak perretxikoen astearekin hasi ziren. Urriaren 21ean perretxikoak batu eta turismo-bulegoan sailkatu ziren. Urriaren 22an, *Plaza Berdurán* erakusketa antolatu zen. Orotara 200 espezieetik gora jarri zituzten. Gainera, Lau-dioko perretxiko zaleen elkarteko kideek perretxiko-pintxoak banatu zituzten. Bizkaiko txakolina ere ez zen falta izan. Herriko okindegiek, berebat, ogi-mota desberdinen erakusketa antolatu zuten perretxiko-erakusketa-aren osagarri.

Gerogarrenean, asteartero, *Gure Abixi* elkartean, ikastaroak egon dira, beste herrialde batzuetako sukaldari-



Herri-bizkeraren lehenengo jardunaldian.

tzari buruz zerbait gehiago ikasi ahal izateko. Besteak beste, Mexiko, Errumania, Ekuador, Senegal, Estatu Batuak, Txina eta Marokoko ordezkariak egon dira bertan, beraien jaki tipikoak zelan egiten diren erakusten.

C) *Musika-ikuskizunak*:

Musika ikuskizunak ere oparo bezain interesgarriak izan dira.

– Urriaren 28an, Errenteriako Andra Mari abesbatzak, Jose Manuel Tiferen zuzendaritzapean, Gotzon Aulestia eta Augustin Zubikarai ondarrutarren musika-lanak abestu zituen, jendez gainezka zegoen Ondarroako Andra Mari elizan. Abesbatzak bederatzi abestiz osatutako emanaldia eskaini zuen. Bederatzi abesti horietarik hiru Zubikaraik idatzitakoak dira: *Nor da Pekatari*, *Bateletan* eta *Itsaso Lapurra*. Nolanahi ere, kontzertuaren ekarpenik interesgarriena lau musika-lan estreinatzea izan zen: *Gurre Aita*, *Bateletan*, *Sylviarentzat* eta *Abaide Nagusiak*. Horiez landa, *Zeruko Erregina*, *Eresi* eta *Bertsolaria* ere abestu zituzten gipuzkoarrek.

Kontzertuko programan ezarritakoa kontuan hartuta, emanaldiko abestien gaiet dagokienez, lau dira nabarmendu beharrekoak: *Bateletan*, *Itsaso lapurra*, *Bertsolaria* eta *Abaide Nagusiak*.

Lehenengo biak Zubikarairen testuetan oinarritu eta itsas girokoak dira. *Bateletan* musika-lanak bi bertsio ditu, lehenengoa 1962koa, eta bigarrena askoz ere geroagokoa. Kontzertuan bertsio berria abestu zen. Musika-lan hori erabat poetikoa da: arrantzale zein arraunlarien indarra eta kemena dira nagusi. *Itsaso lapurra* musika-lanak, ordea, herri arrantzaleek bizi ohi dituzten gazi-gozen berri ematen digu. Erritmo eta konpas askeen harira, guztiz aurkakoak diren irudiak lotzen ditu. Bada, estropadetan irabazi osteko festa-giroaren eta balentria



Herri-bizkeraren lehenengo jardunaldian (Ana Urkiza, aurkezlea, eta Jose Luis Lizundia biztaria

goratzearen atzetik itsas zakarra dator, dena irensten eta hondatzen duena, herriak beltzez janzen dituen.

Bertsolaria musika-lana guztiz erromantikoa da, eta Xalbador bertsolaria omentzeko egin zuen Aulestiak. *Itsaso lapurra* musika-lanean gertatu antzera, musika-tresna autoktonoek aparteko lekua dute *Bertsolaria* musika-lanean ere.

Abaiçe Nagusiak musika-lanak iturri ditu hirurehun urtez euskal herrialdeak astindu zituzten oinaztar eta ganboatarren arteko liskar eta oldarrak. Orduko olerkari euskaldunek kopla eta kantetan dotore asko jaso zituzten gertakari horiek. Ildo horretatik, Aulestiaren musika-lan honek abiapuntu ditu 1464ko Martín Bañez Artazu-



Herriko umeak euren aldizkaria aurkezten.

biagaren eresiak, Ozaetako Santxa Otxoa haren emazte alargunak egindakoak. Zinez, Euskal Herriko historiako pasarterik garrantzitsuenak jaso dituen *Euskal Kondaira* (1980) lan luze besteko ederraren zortzigarren zatia da *Abaide Nagusiak*. Nabarmentzekoa da, berebat, Euskal Kondaira lanaren letrak Xabier Letek eta Xabier Amurizak atondu zituztela.

– Azaroaren 24an, konposizio-lehiaketako lan irabazleak estreinatu ziren Andra Mari elizan. Ondarroako Kantaize abesbatzak, Peli Markuerkiagaren zuzendaritzapean, Jabier Ituarteren *Erreka biren artean* abestu zuen, eta Leioako San Juan Bautista abesbatzak, Basilio Astulezen zuzendaritzapean, Josu Elberdinen *Artzain festa*.



Erretereriako "Andre Mari abesbatza" Ondarroako elizan.

– Azaroaren 25ean, Ondarroako Kafe Antzokian, Zea Mays talde bilbotarrak rock-kontzertu ikusgarria eskaini zuen. Aretoa leporaino betea, Aiora Rementeria abeslariaren ahots zoragarriak aisa bereganatu zituen entzuleak. Abesti guztietatik bat oso berezia izan zen, alegia, Augustin Zubikarainen omenez beren beregi egindakoa: *Hondarretik Ondarroara*. Abestia bizia, arina eta freskoa da. CDA ere, dagoeneko kalean dago. Abestia sortzeko, Zea Maysekoek Zubikarainen *Esan eta Esango* liburura bildutako olerki luze bat oinarri hartu eta konponketa batzuk egin dituzte. Hauxe dio abestiak:

Hondarra, esku huts,
larrugorrian,
inori kontu emon beharrik ez daukan jaube baten gisa.

Eta hondarra,
eguraldiaren kimuz,
harri bihurtu zan,
sekula be bere izenik galdu barik:

Hondar-harri.

Maite mintsu ei da hondarra,
garratz bezain lizun,
lizun adina gordin,
gordin bestean arin.

Hortatik,
dan-danen gainetik,
hondarrak ba ei daki zer kanta.
Hondar-arrua edo hondar-ahoa
Ondarroa.

D) **Antzerkiak:**

Beharbada ez da unerik onena euskarazko antzerkia-
rentzat, baina ahalegin berezia egin da XXI. mendeko le-
henengo lore-jokoetan antzerkia bultzatzeko; izan ere,
horixe zen Zubikarainen arlo kutuna. Guztira bost antzer-
ki antolatu dira, denak ere zeharo desberdinak; horieta-
ko bi, halaber, musikatuak dira.



Beatriz Zubikarai Aitor Martri alkatearengandik oroigarria jasotzen.



"Ondarrutar naturala" lehiaketaiko batzordekideak kontu-kontari.

Hauek dira aukeratutako bost lanak: a) *Emetik Bertso Kabareta* (Onintza Enbeita, Oihane Perea eta Iratxe Ibarra); b) *Gu andreok, helduentzako ipuin-kontaketa* (Ainhoa Irazu); c) *Ezekiel* (Sagarroi & Antzerkiola Imaginarioa); d) *Ez batekin... ezta baiek gabe* (Jon Urraza); e) *Do, Re, Mi doktorea* (Kukubiltxo & Oskorri).

Antzezlan horietarik lehenengo biak emakumea dute gai nagusi. *Ezekiel* eta *Do, Re, Mi doktorea* musikatuak dira, eta bigarren hori umeentzako da. Amaitzeko, *Ez batekin... ezta baiek gabe* hiru bakarriketaz osatzen da, eta bikote-harremanak ditu gai.

E) *Ondarrutar naturala lehiaketa:*

Abenduaren Zan izango da lehiaketa hau Ondarroako Kafe Antzokian. Lehiaketa joko baten antzera antolatu da, eta bost atal izango ditu: Ondarroako kaleak edo lekuak; Ondarroako historia; Ondarroako herbak eta esaerak; Ondarroako pertsonaiak; eta Ondarroako ohiturak.

Lehiaketaren xede nagusia herri-mailako gorabeherak gogoratzea eta gazteen artean hedatzea da, belaunaldi berriek ere horien berri izan dezaten. Lehiaketan hainbat proba gainditu beharko dira: galdera-erantzunak; esaldien edo esaeren hasiera eman eta lehiakideek horiek amaitzea; aurkezleen azalpenak entzunda berba bat edo esatera bat asmatzea; eta egoera jakin baten gainean berba egitea, hizkera-aberastasuna, gatza eta piperra balios-teko¹.

F. Javier Arrieta Idiakex

¹ Argazkiak *Hitzari*-ri esker argitaratzen ditugu.